Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko urriaren 6a, ostirala — 194 — Viernes, a 6 de octubre de 2023

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA

*Tolosaldeko Mankomunitatearen estatutuen aldaketa behin betiko onartzea.*

Tolosaldeko Mankomunitatearen Batzarrak, 2023ko apirilaren 3an egindako bilkuran, behin betiko onartu zuen Tolosaldeko Mankomunitatearen estatutuen aldaketa.

Mankomunatutako udalerri guztietako udaletako osoko bilkurek onartu ondoren, estatutuen testu osoa argitaratzen da, aldaketekin, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalaz gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 Foru Arauaren 11. artikuluaren e) letran eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 131. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahalko dute Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean.

Alegia, 2023ko irailaren 27a.—Lehendakaria.

(7179)

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA. ERAKETA ETA EREMUA

*1. atala. Eraketa.*

Tolosaldeko Mankomunitatea izenarekin toki- erakunde bat eratzen da, honako udalerriok osatua: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Andoain, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil.

*2. atala. Ihardun eremua.*

1. Mankomunitatearen hasierako ihardun-eremuak aurreko artikuluan aipatu udalerriena hartzen du.

2. Tolosaldea 1. xedapen gehigarrian aipatzen diren udalerriek osatuta izanik, Mankomunitate honetako partaide izateko eskubidea aitortzen zaie guzti horiei, Estatutu hauetan azaltzen direnez gain beste eskakizunik gabe.

3. Mankomunitateak, zerbitzuen kudeaketa amankomunari dagokionean, hitzarmenak burutu ahal izango ditu 1. xedapen gehigarrian zerrendaturik ez dauden udalerriekin ere. Aldeek, ordenamendu juridikoarekin bat etorriz, xedatuko dutenak aginduko du Hitzarmen horietan.

## MANCOMUNIDAD DE TOLOSALDEA

*Aprobación definitiva de la modificación de los estatutos de la Mancomunidad de Tolosaldea.*

La Asamblea de la Mancomunidad de Tolosaldea, en la sesión celebrada el 3 de abril del 2023, aprobó definitivamente la modificación de los Estatutos de la Mancomunidad de Tolosaldea.

Una vez aprobado por los Plenos de los Ayuntamientos de todos los municipios mancomunados, se publica el texto íntegro de los estatutos con las modificaciones, de conformidad con lo establecido en el apartado e) del artículo 11 de la Norma Foral 6/2007, de 10 de abril, reguladora de las entidades de ámbito supramunicipal del Territorio Histórico de Gipuzkoa y el artículo 131 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente al de su publicación.

Alegia, a 27 de septiembre de 2023.—La presidenta.

(7179)

MANCOMUNIDAD DE TOLOSALDEA

TÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

CAPÍTULO I. CONSTITUCIÓN Y ÁMBITO

*Artículo 1. Constitución.*

Con la denominación de Mancomunidad de Tolosaldea se constituye una entidad local integrada por los municipios de: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Andoain, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil.

*Artículo 2. Ámbito territorial.*

1. El ámbito territorial inicial de la Mancomunidad abarca al de los municipios a que se ha hecho mención en el artículo anterior.

2. Siendo Tolosaldea una comarca natural integrada por los municipios a que se hace mención en la disposición adicional primera, se reconoce a todos ellos el derecho a formar parte de la Mancomunidad, sin más requisitos que los establecidos en los presentes Estatutos.

3. La Mancomunidad podrá celebrar convenios para la gestión común de servicios con municipios distintos a los enumerados en la disposición adicional primera. Los Convenios se regirán por lo que determinen las partes de acuerdo con el ordenamiento jurídico.

EK\CV GAO-I-2023-07179

*3. atala. Nortasun juridikoa.*

Mankomunitateak nortasun juridikoa eta ahalmen propioa du eta osatzen duten udalenez bestekoa. Autonomiaz dihardu, antolamendu juridiko orokorrak eta Estatutu hauek ezarritako markoaren barne.

*4. atala. Aginpidea.*

1. Mankomunitateak udalerri mankomunatuen mendeko lurraldeetan erabiltzen du bere aginpidea.

2. Mankomunitateak dituen eskumenei dagokionez Legeak eta Araudiek ematen dioten aginpide osoa erabiltzen du.

3. Zerga-aginpidea soilik tasak, prezio publikoak eta kontribuzio bereziak ezartzeko erabili ahal izango da.

4. Mankomunitateak eskatu ahal izango du bere onerako, lurraldeko erakunde lokalei dagokien jabetza kentzeko ahalmena erabiltzea.

*5. atala. Antolaketa eta funtzionamendua.*

Mankomunitatearen antolaketa eta funtzionamendua Estatutu hauetan xedatutakoari lotuko zaizkio, Toki-Erakundeei aplikatzen zaien araudia osagarria izango duela. Hala nola, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalaz gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 foru araua ere aplikatuko zaio.

*6. atala. Kide berriak.*

1. Kide berrien onarpena edo hasierako Mankomunitatea osatzen dutenen baja, Estatutu hauetan aurreikusitakoaren arabera burutuko lirateke.

2. Kide berrien sarrerak zerbitzuaren instalazioari dagozkion gastuen konpentsazio ekonomikoa ekarriko du. Bajak Estatutu hauetan 63 eta 65 artikuluetan adierazten diren eskubide eta obligazio ekonomikoak izango ditu berekin.

*7. atala. Kudeatzeko erak.*

1. Mankomunitateak zuzeneko edo zeharkako kudeaketa bidez burutu ahal izango ditu bere zerbitzu edo iharduerak.

2. Edozein kasutan, aginte ekintza beharra duten iharduera guztiak, halakoak, dagokien aginpideen eremuan, II. Tituluan zerrendaturiko organoen edo hartarako gaituriko funtzionarioen esku daudenak, zeharkako kudeaketatik kanpo geratzen dira.

*8. atala. Pertsonala.*

1. Mankomunitateak bere pertsonal propioa izan dezake, funtzionarioak edo langileak izan, edo mankomunaturiko edozein Udalerri edo haien mendeko erakundeetako pertsonala izan.

Mankomunitateak ez du pertsonal propiorik edukiko, baldin eta zerbitzuak berak edo efikaziak besterik ez badu eskatzen.

2. Funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak Mankomunitateko Udalen edo haien menpeko entitateen plantilletako pertsonalarekin beteko dira, hartarako egindako deialdien bidez. Deialdia baliorik gabe geldituz gero edo lanposturen bat hutsik geratuz gero, adskripzioa derrigorrez egingo da Funtzio Publikoaz legeriak xedatuaren arabera. Dena den, adskripzioa derrigorrezkoa izango da udal zerbitzua mankomunatua izatera pasaz gero. Mankomunitatera adskribatutako funtzionarioek legeriak ezagutzeko eskubideak izango dituzte jatorrizko Administrazioarekiko.

3. Pertsonal laboralaren adskripzioa lan-legeriak agintzen duenaren arabera egingo da.

4. Funtzionarioen edo laboralen adskripzioa lan egin duten Udalerrietan lorturiko eskubideak erabat errespetatuz burutuko da eta, Mankomunitatea desegingo balitz edo jatorrizko Udalerriak langilea ari den zerbitzuari dagokionez Mankomunitatearen barne izateari uko egingo balio, berriro Udalerri horretan automatikoki sartzeko bermearekin.

*Artículo 3. Personalidad jurídica.*

La Mancomunidad tiene personalidad jurídica y capacidad propia y distinta de la de los municipios que la integran. Actúa con autonomía en el marco establecido por el ordenamiento jurídico general y los presentes Estatutos.

*Artículo 4. Potestades.*

1. La Mancomunidad ejerce sus potestades en el ámbito territorial de los municipios mancomunados.

2. La Mancomunidad ejerce en relación con sus competencias todas las potestades que le correspondan conforme a la Ley y los Reglamentos.

3. La potestad tributaria sólo podrá ejercitarse para el establecimiento de tasas, precios públicos y contribuciones especiales.

4. La Mancomunidad podrá solicitar en su beneficio el ejercicio de la potestad expropiatoria correspondiente a los entes locales territoriales.

*Artículo 5. Organización y funcionamiento.*

La organización y funcionamiento de la Mancomunidad se ajustará a lo dispuesto en los presentes Estatutos, siendo supletoria la normativa aplicable a las Entidades Locales, tales como: la Norma Foral 6/2007, de 10 de abril, reguladora de las entidades de ámbito supramunicipal del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

*Artículo 6. Admisión de nuevos asociados y bajas.*

1. La admisión de nuevos asociados o la baja de los que inicialmente constituyen la Mancomunidad se realizarían de conformidad con lo previsto en los presentes Estatutos.

2. La incorporación de nuevos asociados conllevará la compensación económica correspondiente a los gastos de instalación del servicio. La baja conllevará los derechos y obligaciones económicas a que se hace referencia en los arts. 63 y 65 de los presentes Estatutos.

*Artículo 7. Formas de gestión.*

1. Los servicios o actividades de la Mancomunidad podrán ser gestionados directa o indirectamente.

2. Quedan excluidos en todo caso de gestión indirecta las actuaciones que impliquen actos de autoridad que corresponderá, en el marco de las atribuciones, a los órganos enumerados en el Título II o a los funcionarios habilitados al efecto.

*Artículo 8. Personal.*

1. La Mancomunidad podrá disponer de personal propio, funcionario o laboral, o personal adscrito perteneciente a cada uno de los Ayuntamientos mancomunados o sus entidades dependientes.

Salvo que la naturaleza del Servicio o su eficacia lo requiera la Mancomunidad no dispondrá de personal propio.

2. Los puestos de trabajo reservados a personal funcionario se cubrirán entre personal perteneciente a las plantillas de los Ayuntamientos de la Mancomunidad o entidades dependientes de los mismos, mediante convocatoria al efecto. Si la convocatoria se declarase desierta o quedasen puestos vacantes, podrá acudirse a la adscripción forzosa en los términos establecidos en la legislación sobre Función Pública. En todo caso, la adscripción será forzosa cuando un servicio municipal resultase mancomunado. Los/as funcionarios/as adscritos/as a la Mancomunidad conservarán respecto de la Administración de origen los derechos que les reconoce la legislación vigente.

3. La adscripción de personal laboral se hará de conformidad con la legislación laboral.

4. La adscripción de personal funcionario o laboral se hará con pleno respeto a sus derechos adquiridos en el Ayuntamiento del que procedan, con garantía del reingreso automático en caso de extinción de la Mancomunidad o que el Ayuntamiento de procedencia deje de pertenecer a la Mancomunidad en el servicio al que el trabajador está adscrito.

EK\CV GAO-I-2023-07179

*9. atala. Egoitza.*

Mankomunitatearen egoitza Tolosako Plaza Zaharra 6 zk.n dago, Gipuzkoa. Bere egoitza elektronikoa: tolosaldekomankomunitatea.eus delarik.

*10. atala. Iraupena.*

Mankomunitatearen iraupena mugagabea da.

II. KAPITULUA. HELBURUAK

*11. atala. Xedea.*

1. Mankomunitatearen helburuak honako hauek dira:

a) Hiri Hondakinen kudeaketa integrala, hau da, horien bilketa, garraioa eta tratamendua.

b) Etorkizunean haren esku utz litekeen beste edozein, 62. atalean xedaturikoaren arabera.

2. Mankomunitatea, orobat, osatzen duten Udalerrien topaleku gisa eratzen da, denen interesak ukitu edo udalen eta administrazioen arteko elkarlanean oinarrituriko soluzioak beharko dituzten kudeaketa alderdiak aztertzeko eta eztabaidatzeko. Horretarako ondoko hauekburutzeko ahalmena du:

a) Beste zerbitzu batzuk amankomunean jartzeko prozesua hasteko bidezkotasuna erabakitzea.

b) Tokiko zerbitzu publikoak planifikatzea eta gauzatzea eskualdeko ikuspegitik, hartarako osatzen duten Udalekin sinaturiko ahalmenekin eta mugen barne.

c) Tokiko erakundeei laguntza teknikoa ematea dagozkien aginpideen ihardueran eta beroriek zuzenki kudeaturiko zerbitzuen prestazioan.

3. Mankomunitateak, orobat, beste Administrazio Publikoek haren esku utziko dituzten aginpideak erabiliko ditu, Batzarraren aldez aurreko onespenarekin.

*12. atala. Ahalmenak.*

Mankomunitateak aurreko artikuluan aipatu helburuekin, zeharka edo zuzen, zerikusia duten iharduerak burutu ahal izango ditu.

Bereziki, zerbitzuen kudeaketa edo ezarpenerako beharrezkoak diren eraikuntzak edo instalazioak egin ahal izango ditu.

*13. atala. Zerbitzu mankomunatu berriak.*

Zerbitzu berrien amankomuneko kudeaketa Mankomunitatea osatzen duten udalerrien zati baten atxikipenarekin erabaki ahal izango da.

Gainerako udalerriak gero erantsi ahal izango dira, zerbitzuaren izaerak hartarako bidea ematen badu beti ere, zerbitzuaren instalazioari dagozkion gastuak ordaindu ondoren.

*14. atala. Debekua.*

Inoiz ere ez dira udalerriei dagozkien ahalmen guztiak mankomunatu ahal izango.

III. KAPITULUA. ADMINISTRAZIOEN ARTEKO HARREMANAK

*15. atala. Hitzarmenak.*

Mankomunitatearen eta gainerako Administrazio Publikoen arteko lankidetza izenpetuko diren administrazio-hitzarmenen bidez garatuko da.

*Artículo 9. Sede.*

La Sede de la Mancomunidad se ubica en la Plaza Vieja n.º 6 de Tolosa, Gipuzkoa. Siendo su sede electrónica: tolosaldekomankomunitatea.eus.

*Artículo 10.*

La duración de la Mancomunidad es indefinida.

CAPÍTULO II. FINES

*Artículo 11. Objeto.*

1. La Mancomunidad tiene como objeto:

a) La gestión integral de los Residuos Urbanos, que comprenderá la recogida, transporte y tratamiento.

b) Cualquier otro que en el futuro pueda encomendársele, de acuerdo con establecido en el artículo 62.

2. La Mancomunidad se constituye, igualmente, en lugar de encuentro de los Ayuntamientos que la integran a fin de analizar y debatir los aspectos de su gestión que afecten a intereses comunes o necesiten soluciones basadas en la cooperación intermunicipal e interadministrativa. A tal efecto podrá:

a) Acordar la procedencia de iniciar el proceso para mancomunar nuevos servicios.

b) Coordinar en la perspectiva comarcal la planificación y ejecución de los servicios públicos locales en la forma y con las facultades y límites que a estos efectos pueda suscribir con los Ayuntamientos que la integran.

c) Apoyar técnicamente a las entidades locales en el ejercicio de sus competencias y en la prestación de los servicios gestionados directamente por las mismas.

3. La Mancomunidad ejercerá igualmente las competencias que le deleguen o encomienden otras Administraciones Públicas, previo acuerdo de la Asamblea.

*Artículo 12. Facultades.*

La Mancomunidad podrá llevar a cabo todas las actuaciones relacionadas directa o indirectamente con los fines a que se hace mención en el artículo anterior.

En particular, podrá llevar a cabo las edificaciones o instalaciones que se requieran para la gestión e implantación de los servicios.

*Artículo 13. Nuevos servicios mancomunados.*

La gestión mancomunada de nuevos servicios podrá acordarse con la incorporación sólo de parte de los municipios que integran la Mancomunidad.

Los restantes municipios podrán incorporarse con posterioridad, siempre que la naturaleza del servicio lo permita, previa la compensación económica correspondiente a los gastos de instalación del servicio.

*Artículo 14. Prohibición.*

En ningún caso podrán mancomunarse la totalidad de las competencias asignadas a los municipios.

CAPÍTULO III. RELACIONES INTERADMINISTRATIVAS

*Artículo 15. Convenios.*

La cooperación económica, técnica y administrativa entre la Mancomunidad y el resto de las Administraciones Públicas, se desarrollará mediante los convenios administrativos que se suscriban.

EK\CV GAO-I-2023-07179

## II. TITULUA

## GOBERNU ORGANOAK

*16. atala. Zerrenda.*

1. Tolosaldeko Mankomunitateko gobernu organoak honako hauek izango dira:

— Batzarra.

— Batzorde Iraunkorra.

— Lehendakaria.

— Lehendakariordea.

2. Batzarrak edo Batzorde Iraunkorrak harturiko Erabakiaren bidez Informazio-Batzordeak eratu ahal izango dira.

3. Mankomunitatea bere organoen osaeran emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatzen saiatuko da, non sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkaritza izango duen, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legean adierazitakoaren arabera.

### I. KAPITULUA. BATZARRA

### 1. SEKZIOA. Osaketa eta eraketa

*17. atala. Organo Gorena.*

Mankomunitatearen organo gorena Batzarra da.

*18. atala. Osaketa.*

1. Batzarra udalerri mankomunatu bakoitzeko ordezkari banak osatzen du. Udal bakoitzeko Alkatea edo ordezkatzen dion zinegotzia izango da Udalerri bakoitzeko ordezkaria Batzarrean.

2. Hala Alkateak nola iharduneko Alkateak bere ordezkaria izenda dezake, idatziz, bilera jakinetarako. Batzarreko Idazkariari dagokio ordezkaritza kreditatzen duen dokumentua egiaztatzea eta Aktari eranstea.

*19. atala. Ordezkaritza.*

Mankomunitatearen funtzionamenduan udalerri bakoitzak duen parte-hartzeak udal-erroldan ofizialki erregistratuta dagoen biztanle kopuruaren proportzioan izango da.

Udalerri bakoitzaren parte hartzeak eguneratuko dira mankomunitatearen organoak eratzen diren bakoitzean.

*20. atala. Eraketa.*

1. Udaletako ordezkariak, Mankomunitateko Idazkariak deia egin ondoren, Biltzar eratzailean bildutako dira, Tokiko Hauteskundeen ondoko egunetik edo ondoko astegunetik hirurogei egun naturaletara, baldin eta, Mankomunitatean sarturiko Udalen bateko zinegotzien aldarrikapenari dagokionez, hautespenarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztuko ez balitz, kasu horretan Batzarra hauteskundeak egindako egunetik edo ondoko astegunetik 80 egunera eratuko litzateke.

2. Batzarrak lehen deialdian baliozko eraketa izan dezan, Mankomunitateko zuzenbidezko biztanleen gehiengo absolutuaren ordezkari izango den botoen gehiengo absolutuak bertan izan beharko du.

Bigarren deialdia ordubete geroago egingo da, gutxienez Mankomunitateko zuzenbidezko biztanleen herenaren ordezkari izango diren Alkateen heren bat bertan daudela beti ere.

*21. atala. Eraketa ekitaldiko gai-zerrenda.*

1. Batzarra eratzeko ekitaldian, lehen buruan, Adin Mahaia eratuko da, bertaratuen arteko adin handienekoak eta adin txi-

## TÍTULO II

## ÓRGANOS DE GOBIERNO

*Artículo 16. Enumeración.*

1. Los órganos de gobierno de la Mancomunidad de Tolosaldea serán los siguientes:

— La Asamblea.

— La Comisión Permanente.

— El/La Presidente/a.

— El/La Vicepresidente/a.

2. Mediante Acuerdo de la Asamblea o la Comisión Permanente podrán crearse Comisiones Informativas.

3. La Mancomunidad intentará garantizar en la composición de sus órganos una representación equilibrada de mujeres y hombres, en el que cada sexo esté representado al menos por el 40 %, conforme a lo señalado en la Ley, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres.

### CAPÍTULO I. TÍTULO DE LA ASAMBLEA

### SECCIÓN 1.ª Composición y constitución

*Artículo 17. Órgano Supremo.*

La Asamblea es el órgano supremo de la Mancomunidad.

*Artículo 18. Composición.*

1. La asamblea se compone por un/a representante de cada municipio mancomunado. El/La Alcalde/sa de cada Ayuntamiento o Concejal/a en quien delegue, será el/la representante ordinario/a de cada municipio de la Asamblea.

2. Tanto el/la Alcalde/sa como el/la Alcalde/sa en funciones podrán delegar su representación, por escrito, para sesiones concretas. Corresponde al/a la /a de la Asamblea verificar e incorporar al Acta el documento en que se acredite la delegación.

*Artículo 19. Representación.*

La participación de cada municipio en el funcionamiento de la Mancomunidad está fijada en proporción al número de habitantes registrados oficialmente en los respectivos padrones municipales.

Las participaciones de cada municipio se actualizarán cada vez que se constituyan los órganos de la mancomunidad.

*Artículo 20. Constitución.*

1. Los/as representantes municipales, previa convocatoria del/de la Secretario/a de la Mancomunidad, se reunirán en Asamblea constitutiva a los sesenta días naturales contados a partir del siguiente de las Elecciones Locales o inmediato hábil posterior, salvo que se hubiese presentado recurso contencioso electoral contra la proclamación de concejales/as en alguno de los Ayuntamientos integrados en la Mancomunidad, en cuyo caso se constituirá la Asamblea a los 80 días de celebradas aquéllas o inmediato hábil posterior.

2. Para la válida constitución de la Asamblea en primera convocatoria se requerirá la presencia de la mayoría absoluta de votos que habrá de representar también a la mayoría absoluta de los/as habitantes de derecho de la Mancomunidad.

En segunda convocatoria se celebrará una hora después siempre que asistan un tercio de Alcaldes/as que representen, al menos, a la tercera parte de los/as habitantes de derecho de la Mancomunidad.

*Artículo 21. Orden del día de la sesión constitutiva.*

1. En la sesión constitutiva de la Asamblea se procederá, en primer lugar, a la formación de la Mesa de Edad integrada

EK\CV GAO-I-2023-07179

kienekoak osaturikoa, lehena Mankomunitateko Lehendakari gisa eta bigarrena Idazkari gisa arituko direlarik.

Mahaiak hautetsien egiaztagiriak egiaztatuko ditu eta Lehendakariak Batzarra eratutzat aldarrikatuko du.

2. Ondoren Mankomunitateko Lehendakariaren eta Lehendakariordearen hautespenari ekingo zaio. Lehen botazioan emandako botoen gehiengoa osoa lortuko duen hautagaia Lehendakari hautatua izango da. Gehiengo hori ezein hautagaik lortu ez izatera, beste botazio bat egingo litzateke ondoren eta emandako botoen gehiengo soila lortuko lukeen hautagaia Lehendakaria hautatua aldarrikatuko lukete.

Lehendakariordea hautatzeko berdin ihardungo dute.

Kargu biak ezin izango dituzte inola ere Udal bereko ordezkariak bereganatu.

3. Eraketa ekitaldira bertaratuko ez liratekeen ordezkariek ondoko ekitaldietan parte hartuko dute Batzarrean, beren kredentziala aldez aurretik Mankomunitateko Idazkariaren esku utzirik, Idazkari horrek aztertuko ditu eta bere adostasuna edo ezadostasuna adieraziko du.

*22. atala. Amaiera eta ihardunako administrazioa.*

1. Batzarraren azken ekitaldia aurrekoaren edo aurrekoen akta onartzera ez bestera eskainia izango da, bosgarren egunean edo Udalbatzar berriak eratu aurreko astegunean, eta horrekin amaituko da haren agintaldia.

2. Agintaldia amaiturik, kargua uzten dutenek ihardunean jarraituko dute ohizko administrazioari dagokionean soilki, harik eta aginte organo berriak eratu artean. Inoiz ere ezin hartuko dituzte gehiengo berezia eskatzen duten inolako erabakirik.

2. SEKZIOA. Ahalmenak

*23. atala. Zerrenda.*

Ondoko ahalmen hauek dagozkio Batzarrari:

a) Mankomunitateko politika eta administrazioaren jarraipideen ezarpena eta onespena.

b) Gobernu organoen kontrola eta fiskalizazioa.

c) Mankomunitatearen zerbitzuetan udalerri berriak onartzea edo haietatik bereiztea.

d) Estatutuen aldaketen onespena.

e) Ordenantza eta Araudien onespena.

f) Udalek ekarri beharreko baliabide propioak eta kuotak; Aurrekontuen onespena eta aldaketa, bere aginpideko arazoetarako gastuen xedapena eta kontuen onespena.

g) Zerbitzuen kudeaketa-moldeen eta erkidego-espedienteen onespena.

h) Beste Administrazio Publikoek eginiko eskumenen ordezkaritza eta eskualdeen onarpena.

i) Beste Toki-Erakundeei eta gainerako Administrazio Publikoei eskuduntza-gatazkak planteatzea.

j) Apirilaren 2ko 7/1985 legea, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena eta bete beharreko gainerako arauen baldintzetan, langile plantilla onestea, lanpostuen zerrenda, langileak hautatzeko proben oinarriak eta lanpostuak betetzeko lehiaketa. Udal mankomunatuetako edo haien mendeko erakundeetako langileak adskribatzeko arauen onarpena. Ordainsari osagarrien zenbatekoa eta behin-behineko langileen kopurua eta erregimena finkatzea, bai eta Mankomunitateko funtzionarioak zerbitzutik banantzea, LBRL.ko 99, 3 artikuluan xedaturikoa izan ezik. Guzti hori, Estatutu hauetako 8. artikuluan xedaturikoari kalterik egin gabe.

por el/la miembro de mayor edad de los/as presentes que actuará como Presidente/a y el/la de menor edad, actuando como Secretario/a el/la de la Mancomunidad.

La Mesa comprobará las acreditaciones de los/as electos/as y su Presidente/a declarará constituida la Asamblea.

2. Seguidamente se procederá a la elección del/de la Presidente/a y Vicepresidente/a de la Mancomunidad. Será elegido Presidente/a el/la candidata/a que en la primera votación obtenga la mayoría absoluta de los votos emitidos. Si ningún/a candidato/a obtuviere dicha mayoría se celebrará a continuación nueva votación, siendo proclamado/a Presidente/a el/la candidata/a que obtuviere la mayoría simple de los votos emitidos.

Se procederá de la misma forma para la elección del/de la Vicepresidente/a.

En ningún caso podrán recaer ambos cargos en representantes del mismo Ayuntamiento.

3. Los/las representantes que no hubieren estado presentes en la sesión constitutiva, se incorporarán a la Asamblea en las siguientes sesiones que celebre, previa entrega de su credencial al/la Secretario/a de la Mancomunidad que la examinará y prestará su conformidad o disconformidad.

*Artículo 22. Finalización y administración en funciones.*

1. La Asamblea celebrará su última sesión a los solos efectos de aprobar el acta de la anterior o anteriores, el quinto día o inmediato hábil anterior a la constitución de las nuevas Corporaciones Municipales, produciéndose con ello la finalización de su mandato.

2. Finalizado su mandato, los/as cesantes continuarán sus funciones solamente para la administración ordinaria, hasta que se constituyan los nuevos órganos rectores. En ningún caso podrán adoptar acuerdos para los que se requiera una mayoría cualificada.

SECCIÓN 2.ª Atribuciones

*Artículo 23. Enumeración.*

Corresponden a la Asamblea las siguientes atribuciones:

a) Establecimiento y aprobación de las directrices de política y administración de la Mancomunidad.

b) Control y fiscalización de los órganos de gobierno.

c) Aceptación de nuevas adhesiones y separaciones de municipios de los distintos servicios de la Mancomunidad.

d) Aprobación de modificaciones de los Estatutos.

e) Aprobación de Ordenanzas y Reglamentos.

f) Determinación de los recursos propios y cuotas a aportar por los Ayuntamientos; aprobación y modificación de los Presupuestos, disposición de gastos en asuntos de su competencia y aprobación de cuentas.

g) Aprobación de las formas de gestión de los servicios y de expedientes de mancomunación.

h) Aceptación de transferencias y delegaciones de competencias hechas por otras Administraciones Públicas.

i) Planteamiento de conflictos de competencia a otras Entidades Locales y demás Administraciones Públicas.

j) En los términos de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases de Régimen Local y demás normas de necesaria aplicación, aprobación de la plantilla de personal, relación de puestos de trabajo, bases de las pruebas para selección de personal y concursos de provisión de puestos de trabajo. Aprobación de las reglas de adscripción de personal perteneciente a los Ayuntamientos mancomunados o a sus entidades dependientes. Fijación de la cuantía de las retribuciones complementarias y el número y régimen del personal eventual, así como la separación del servicio de los funcionarios de la Mancomunidad salvo lo dispuesto en el artículo 99, 3, LBRL. Todo ello sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 8 de los presentes Estatutos.

EK\CV GAO-I-2023-07179

k) Akzio administratibo eta judizialak burutzea.

l) Jabetza publikoko ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzea.

m) Ondasunen lorpena, obra, zerbitzu eta hornikuntzen kontratazioa, baldin eta horien iraupena urtebetez gorakoa bada edo urteko aurrekontuan esleitutako kredituak gainditzen baditu.

n) Eraikuntza-proiektuak onartzea, haien kontratazioa bere aginpidekoa denean.

o) Kreditu edo berme-eragiketak onartzea eta kitak eta itxoiteak ematea.

p) Ondasunen erabileraren emakida, alokairua, edo lagapena bost urte baino gehiagorako, beti ere horien munta Aurrekontuaren ohizko baliabideen ehuneko hamarretik goragokoa bada.

q) Mankomunitateko ordezkariak izendatzeko beste kide anitzeko Organoen aurrean.

r) Beste Toki Erakunde eta Administrazio Publikoetarako Lankidetzako Hitzarmenetarako Baimena ematea eta halakoak Onestea.

s) Onartu ahal izateko gehiengo berezia eskatzen dutenak.

t) Estatutu hauek edo Legeek Udalbatzei berariaz ematen dizkieten gainerako guztiak.

II. KAPITULUA. BATZORDE IRAUNKORRA

1. SEKZIOA. Osaketa

*24. atala. Izendapena.*

Batzarrak aukeratuko du Batzorde Iraunkorra, bilkura eratzailean.

*25. atala. Osaketa.*

1. Batzarreko kideen artean hautaturiko zazpi baino gehiagoko eta hamaika baino gutxiagoko kide kopuruak osatuko du Batzorde Iraunkorra.

2. Lehendakaria eta Lehendakariordea, beti ere, haietarik izango dira eta Batzordean halakotzat ihardungo dute.

3. Batzorde Iraunkorrean izango dira, gutxienez, ondoko udal taldeetako Alkate bana:

a) 500 biztanle arteko herriak.

b) 500-2.000 biztanle arteko herriak.

c) 2.000 biztanletik gorako herriak.

4. Idazkari gisa, Mankomunitatekoak ihardungo du.

*26. atala. Batzordekide izaera galtzea.*

Batzorde Iraunkorreko kide izaera honako arrazoi hauengatik gal daiteke:

a) Alkate edo Zinegotzi izaeraren galera dakarten edonolako kausarengatik.

b) Batzarraren erabakiz.

c) Dimisioa.

2. SEKZIOA. Eskumenak

*27. atala. Eskumen propioak.*

1. Batzorde Iraunkorrari honako eskumen hauek dagozkio:

a) Batzarraren erabakiak betetzea beste ezein organoren edo erakunderen esku uzten ez direnean. Erabakiak egokiro betetzearen ardura, Lehendakaria ez den beste ezein organori edo erakunderi ez dagokionean.

k) Ejercicio de acciones administrativas y judiciales.

l) Alteración de la calificación jurídica de los bienes de dominio público.

m) Adquisición de bienes, contratación de obras, servicios, y suministros cuya duración exceda de un año o exija créditos superiores a los consignados en el presupuesto anual.

n) Aprobación de los proyectos de obra cuando la contratación sea de su competencia.

o) Aprobación de operaciones de crédito o garantía y concesión de quitas y esperas.

p) Concesión, arrendamiento o cesión de uso de bienes por más de cinco años, siempre que su cuantía exceda del 10 por 100 de los recursos ordinarios de su Presupuesto.

q) Designación de representantes de la Mancomunidad ante otros órganos colegiados.

r) Autorización y Aprobación de Convenios de Cooperación con otras Entidades Locales y Administraciones Públicas.

s) Aquellas otras cuya aprobación requiera mayoría especial.

t) Las demás que expresamente le confieren estos Estatutos o que atribuyen las Leyes al Pleno de los Ayuntamientos.

CAPÍTULO II. DE LA COMISIÓN PERMANENTE

SECCIÓN 1.ª Composición

*Artículo 24. Designación.*

La Comisión Permanente será elegida por la Asamblea, en su sesión constituyente.

*Artículo 25. Composición.*

1. La Comisión permanente se compondrá de un número total de miembros ni inferior a siete ni superior a once, elegidos entre los/as miembros de la Asamblea.

2. Formarán parte, en todo caso, el/la Presidente/a y el/la Vicepresidente/a que actuarán en la Comisión en condición de tales.

3. Formará parte de la Comisión Permanente, cuando menos, un/a Alcalde/sa perteneciente a cada uno de los siguientes grupos de municipios:

a) Hasta 500 habitantes.

b) De 500 hasta 2.000 habitantes.

c) De 2.000 en adelante.

4. Actuará de Secretario/a, el/la de la Mancomunidad.

*Artículo 26. Pérdida de la condición.*

La condición de miembro de la Comisión permanente se perderá por:

a) Cualquiera de las causas que impliquen pérdida de la condición de Alcalde/sa o Concejal/a.

b) Cese acordado por la Asamblea.

c) Dimisión.

SECCIÓN 2.ª Competencias

*Artículo 27. Competencias propias.*

1. Corresponden a la Comisión Permanente las siguientes competencias:

a) Ejecutar los acuerdos de la Asamblea cuando no estén atribuidos a ningún otro órgano o entidad. Cuidar de la correcta ejecución de los acuerdos cuando corresponda a cualquier otro órgano o entidad, distinto del/de la Presidente/a.

EK\CV GAO-I-2023-07179

b) Mankomunitateko zerbitzuak antolatzea eta haren ondasunak eta fondoak kudeatzea.

c) Iharduera Plana moldatzea Batzarrak eztabaida dezan, delako Plan hori Mankomunitatearen helburuak hobekien lortzea bideratuko duten irizpide politiko, tekniko eta administratiboen multzo gisa harturik.

d) Aurrekontu-proiektuak egitea, Kontu hartzailearen laguntzaz. Onarturikoen garapen egokia bideratzea, Batzarrari kontuak emango dizkiola buruturiko ekitaldiaren ondoko urteko lehen seihilekoaren barnean.

e) Mankomunitateko Obra eta Inbertsioen Plana xedatzea, gero Batzarrari aurkezteko berak onar dezan.

f) Ondasun higigarriak eta higiezinak erostea, saltzea besterentzea edo haien gainerako beste edozein egintza.

g) Batzarrari ez dagozkion obren, horniketen edo zerbitzuen kontratazioa.

h) Lehendakariari bere ihardunean laguntzea.

i) Batzarrari proposamenak egitea, haren eskumeneko gaietan.

j) Oro har, Batzarrari edo Lehendakariari espreski esleituak ez zaizkien beste guztiak.

2. Mankomunitateak zerbitzu berriek udalerri batzuentzat bakarrik ematea erabakitzen badu eta Batzorde Iraunkorrean berauetako ordezkaririk ez badago, Batzordeak udalerri horiei aholkua eskatuko die aipatu zerbitzuei dagozkien erabakiak hartzean.

*28. atala. Eskuordeturiko eskumenak.*

1. Batzorde Iraunkorrak, orobat, Batzarrak edo Lehendakariak bere esku utzitako aginpideak izango ditu.

2. Udaletako Udalbatzari edo Alkateari esleitukoen artean halako legezko izaera duten aginpideak ezin utziko dira Batzordearen esku.

III. KAPITULUA. LEHENDAKARIA

*29. atala. Izaera.*

Lehendakaria Mankomunitatekoa da eta haren kide bakarreko organo gorena da.

*30. atala. Izendapena.*

1. Mankomunitateko Lehendakaria bi urtez behin, Batzarreko kideen artean hautatuko da, Estatutuetako 21.1 atalean aurreikusten den moldean.

2. Aukeratuak izendapena onartu beharko du eta Batzar beraren aurrean jabetuko da karguaz, hautaketa burutu eta berehala.

Aukeratua bertan ez izatera, beste Batzar baterako deia egingo da ondoko hamar eta hamabost astegunen barne, aurreko paragrafoan aurreikusita xedeetarako.

Inolako kausa justifikaturik gabe bertaratuko ez balitz, izendapena onartzen ez duela ulertuko da.

3. Batzarrak beste hautaketa bati ekingo dio ekitaldi horretan bertan, bertaratu guztiak ados izatera, edo bestela, berrogeita zortzi ordu geroago egingo den beste batean.

*31. atala. Izaeraren galera.*

Lehendakari kargua, xede horretarako indarreko legeriak Alkate kargua galtzeko adierazten dituen zirkunstantziatariko edozeinengatik.

Kargua galtzeak ordezkatuko duen beste baten derrigorrezko hautaketa ekarriko du.

b) Organizar los servicios de la Mancomunidad y administrar sus bienes y fondos.

c) Elaborar para su debate por la Asamblea el Plan de Actividades, entendido como el conjunto de criterios políticos, técnicos y administrativos que han de orientar el mejor logro de los objetivos de la Mancomunidad.

d) Elaborar, con la asistencia del Interventor, los proyectos de Presupuesto. Disponer el adecuado desarrollo de los aprobados, rindiendo cuentas a la Asamblea dentro del primer semestre del año siguiente al del ejercicio finalizado.

e) Establecer el Plan de Obras e Inversiones de la Mancomunidad para su sometimiento a la aprobación por la Asamblea.

f) La adquisición, transacción, enajenación o cualquier otro acto de disposición sobre bienes muebles e inmuebles.

g) La contratación de obras, suministros o servicios no atribuida a la Asamblea.

h) Asistir al/a la Presidente/a en el ejercicio de sus funciones.

i) Hacer propuestas a la Asamblea en las materias de la competencia de ésta.

j) En general, todas aquellas que no estén expresamente atribuidas a la Asamblea o al /a la Presidente/a.

2. En el supuesto de que se acuerde por la Mancomunidad la prestación de nuevos servicios para parte de los municipios que constituyan la Entidad sin que ninguno de sus representantes forme parte de la Comisión Permanente, éste órgano consultará a dichos municipios las decisiones que afecten a la gestión de los referidos servicios.

*Artículo 28. Competencias delegadas.*

1. La Comisión Permanente ostentará igualmente las competencias que le deleguen la Asamblea o el/la Presidente/a.

2. Serán indelegables aquéllas que tengan tal consideración legal entre las atribuidas al Pleno de los Ayuntamientos, o al/a la Alcalde/sa, en cada caso.

CAPÍTULO III. DEL/DE LA PRESIDENTE/A

*Artículo 29. Condición.*

El/La Presidente/a lo es de la Mancomunidad y es el órgano unipersonal superior de la misma.

*Artículo 30. Designación.*

1. El/la Presidente/a de la Mancomunidad será elegido/a cada dos años entre los/as miembros de la Asamblea en la forma prevista en el artículo de los presentes Estatutos.

2. El/la elegido/a deberá aceptar su designación y tomar posesión de su cargo, ante la misma Asamblea, de modo consecutivo e inmediato a su elección.

Si el/la elegido/a no se hallase presente se convocará otra Asamblea entre los diez y quince días naturales siguientes a los efectos prevenidos en el párrafo anterior.

Si no acudiere sin aducir causa alguna justificada se entenderá que no acepta su designación.

3. La Asamblea procederá a una nueva elección en la misma sesión, si todos/as los/as presentes estuvieran de acuerdo, o en otra que se celebrará cuarenta y ocho horas más tarde, en caso contrario.

*Artículo 31. Pérdida de la condición.*

El cargo de Presidente/a se perderá por cualquiera de las circunstancias que a tal efecto se señalen en la legislación vigente para la pérdida del cargo de Alcalde/sa.

La pérdida del cargo determinará la obligatoria elección de otro/a que lo/la sustituya.

EK\CV GAO-I-2023-07179

*32. atala. Funtzioak.*

Lehendakariari honako hauek dagozkio:

a) Mankomunitateko gobernua eta administrazioa zuzentzea.

b) Mankomunitatea modu ofizialean eta administrazioari dagokionean, era guztietako negozio juridikoetan, ordezkatzea, Prokuradore eta Letratuei mandatuak emateko ahalmena Mankomunitatea defenda eta ordezka dezaketen.

c) Batzar eta Batzorde Iraunkorreko bilkuretara deitzea eta haietako mahaiburu izatea.

d) Zerbitzu eta obra mankomunatuak zuzendu, ikuskatu eta bultzatzea.

e) Ordainketak agintzea eta kontuak ematea.

f) Mankomunitateko langile guztien buru izatea.

g) Premiazko kasuetan legezko eta administrazio akzioak gauzatzea, Batzarrari horren berri emanez egingo den lehen bilkuran.

h) Berdinketak erabakitzea kalitateko botoaren bidez.

i) Mankomunitateko gobernu-organoen erabakiak argitaratu gauzatu eta betearaztea.

j) Mahaiburu izatea mota guztietako esleipenetarako enkante eta lehiaketetan.

k) Mankomunitateko karrerako funtzionarioak izendatzea, langileen kontratuak formalizatzea, 8. atalak aipatzen duen pertsonala adskribatzea eta disziplinazko espedienteen instrukzioa agintzea.

l) Dokumentu publiko edo pribatuetarako baimena ematea Mankomunitatearen izenean.

m) Mankomunitateko arazoek beharko lituzketen urgentziazko neurriak bere gain hartzea, Batzar eta Batzorde Iraunkorraren lehen bilkuran halakoen berri emanez, bai eta, arazoaren garrantziak eskatuko balu, aparteko Batzarrerako deia eginez.

IV. KAPITULUA. LEHENDAKARIORDEA

*33. atala. Izendapena.*

Mankomunitateko Lehendakariordea Batzarreko kideen artean hautatuko da Estatutu hauen 21.2 atalean aurreikusia dagoen eran eta kargua espreski onartu beharko du.

Aukeraturiko Lehendakariordea bilkura horretan ez izatera, Lehendakari hautatuaren ausentziaren kasurako 30. atalean aurreikusi den moduan ihardungo da.

*34. atala. Izaeraren galera.*

Indarreko legerian Alkate karguaren galera dakarten ezein zirkunstantziagatik galduko da Lehendakariorde kargua.

Titularrak Lehendakariorde kargua galtzeak haren ordezko izango denaren hautaketa dakar derrigorrez.

*35. atala. Funtzioak.*

1. Lehendakariordeari dagokio Lehendakaria ordezkatzea beronen funtzio guztietan hura kanpoan denean, postua bete gabe denean edo gaixotasunagatik, egoerak urgentziazko iharduera eskatuko balu.

2. Lehendakariordeak inoiz ezin baliogabetuko du Lehendakariak erabakitzeko ordezkapenik, ez eta Lehendakariaren aginpideen beste ordezkapenik egin.

*Artículo 32. Funciones.*

Corresponde al/a la Presidente/a:

a) Dirigir el gobierno y administración de la Mancomunidad.

b) Representar oficial y administrativamente a la Mancomunidad en toda clase de negocios jurídicos con facultad para conferir mandatos a Procuradores/as y Letrados/as que representen y defiendan a la Mancomunidad.

c) Convocar y presidir las sesiones de la Asamblea y la Comisión Permanente.

d) Dirigir, inspeccionar e impulsar los servicios y obras mancomunados.

e) Ordenar pagos y rendir cuentas.

f) Desempeñar la jefatura superior de todo el personal de la Mancomunidad.

g) Ejercitar acciones judiciales y administrativas en caso de urgencia dando cuenta a la Asamblea en la primera sesión que ésta celebre.

h) Decidir los empates con voto de calidad.

i) Publicar, ejecutar y hacer cumplir los acuerdos de los órganos de gobierno de la Mancomunidad.

j) Presidir las subastas y concursos para toda clase de adjudicaciones.

k) Nombrar a los/as funcionarios/as de carrera de la Mancomunidad, formalizar los contratos del personal laboral, adscribir el personal a que se refiere el artículo 8 y ordenar la instrucción de expedientes disciplinarios.

l) Autorizar documentos públicos o privados en nombre de la Mancomunidad.

m) Adoptar por sí, bajo su responsabilidad, las medidas de urgencia que requieran los asuntos de la Mancomunidad, dando cuenta a la Asamblea y a la Comisión Permanente en su primera reunión, acordando la convocatoria de sesión extraordinaria de la Asamblea, si la importancia del asunto lo requiriere.

CAPÍTULO IV. EL/LA VICEPRESIDENTE/A

*Artículo 33. Designación.*

El/La Vicepresidente/a de la Mancomunidad será designado/a de entre los/as miembros/as de la Asamblea en la forma prevista en el artículo 21.2 de los presente Estatutos y habrá de aceptar expresamente el cargo.

Si el/la Vicepresidente/a elegido/a no se hallase presente en la sesión se actuará en la forma prevista en el artículo 30 para el caso de ausencia del/de la elegido/a como Presidente/a.

*Artículo 34. Pérdida de la condición.*

El cargo de Vicepresidente/a se perderá por cualquiera de las circunstancias que a tal efecto se señalan en la legislación vigente para la pérdida del cargo de Alcalde/sa.

La pérdida del cargo de Vicepresidente/a por su titular determina la obligatoria elección de otro/a que lo sustituya.

*Artículo 35. Funciones.*

1. Corresponde al/a la Vicepresidente/a sustituir al/ a la Presidente/a en la totalidad de sus funciones en caso de ausencia, vacante o enfermedad, si se dieran situaciones que requieran actuaciones de urgencia.

2. El/La Vicepresidente/a no podrá revocar en ningún caso las delegaciones que hubiera otorgado el/la Presidente/a, ni otorgar nuevas delegaciones de las atribuciones del/de la Presidente/a.

EK\CV GAO-I-2023-07179

V. KAPITULUA. INFORMAZIO BATZORDEAK

*36. atala. Sorrera.*

1. Batzarrak bere eskumeneko arazoen azterketarako edo haien berri izateko, egoki deritzon Informazio-Batzordeak sor daitezke, izaera iraunkorra edo ez iraunkorra izango dutenak. Sorrera unean lanaren ingurune materiala zehaztuko du, bai eta haren osaketa eta atribuzioak. Dena den, geroagoko edozein unetan alderdi horiek aldatu ahal izango dira, eta bertan behera utzi ere.

2. Batzarrak eta Batzorde Iraunkorrak, edozein unetan eta bakoitzari dagozkion atribuzioen barne, Informazio Batzorde Bereziak sor ditzakete, beren sorrera eragin duten arazoari buruzko behin betiko erabakia hartu ondoren desegingo direnak.

3. Informazioa-Batzordeetako partaideak Udaletako kide hautatuak izan daitezke. Batzordekide izateko Alkatea izatea ez da beharrezkoa izango.

*37. atala. Atribuzioak.*

1. Informazio-Batzordeei dagokie sortu zituen organoak ebatzi behar dituen bere eskumeneko arazoetan ebazpen-proposamenak aztertzea eta formulatzea.

2. Txosten edo proposamenak ez dira lotesle izaerakoak izango, horretaz organo erabakitzaileak kasu bakoitzean egoki eritziko dion erabakia hartuko du.

III. TITULUA

FUNTZIONAMENDUA

*38. atala. Xedapen Orokorra.*

Gobernu organoek erabakiak hartzerakoan Estatutu hauetan eta dagokion legerian xedaturikoaren arabera ihardungo dute.

I. KAPITULUA. KIDE BAKARREKO ORGANOAK

*39. atala. Forma.*

Kide bakarreko organoek idatziz hartuko dituzte erabakiak, salbu eta horien izaerak hori eskatzen ez badu.

II. KAPITULUA. KIDE ANITZEKO ORGANOAK

*40. atala. Bilkura erregimena.*

Kide anitzeko organoek bilkura erregimenean hartuko dituzte erabakiak.

*41. atala. Bilkura motak.*

1. Kide anitzeko organoen bilkurak izan daitezke:

a) Ohizkoak.

b) Apartekoak.

2. Maiztasuna aldez aurretik erabakia duten bilkurak dira ohizkoak.

3. Aparteko bilkurak kide anitzeko organoko Lehendakariak izaera horrekin deitzen dituenak dira, bere ekimen propioaz edota kideen kopuru legalaren laurdenak, gutxienez, hala eskaturik.

*42. atala. Ohizko Bilkuretako gutxieneko kopurua.*

1. Batzarra, gutxienez, urtean behin bilduko da ohizko bilkuran.

2. Batzorde Iraunkorra, gutxienez, urtean bi alditan bilduko da ohizko bilkuran.

CAPÍTULO V. LAS COMISIÓNES INFORMATIVAS

*Artículo 36. Creación.*

1. La Asamblea podrá crear, con carácter permanente o no, las Comisiones Informativas que juzgue conveniente para el estudio e informe de asuntos de su competencia. En el momento de su creación definirá el ámbito material del trabajo, así como su composición y atribuciones. No obstante, podrá en cualquier momento posterior modificar dichos aspectos, así como suprimirlas.

